

Arantza Diez. Errefuxiatuekiko axolagabekeriari aurre egiten



To Kyma. Rescat al mar Egeu dokumentalaren zuzendaria da Arantza Diez (Bartzelona, 1975) eta egunotan *Lesbos, a cor obert* liburua aurkezten ari da. Lesboseko bizipenak azaldu ditu, kazetaritza-kronika baino zerbait gehiago izan nahi duen liburuan.

“Mediterraneoan gertatzen dena ez da drama, krimena baizik”



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: ARANTZA DIEZEK UTZIAK

Kontatzeko beharra

“Lesbosetik itzuli nintzenean nire iza-tearen zati bat gelditu zen han. Bizitzarekiko ikuspegia aldatu zitzaidan erabat. Nik zurekin kafea hartzen dudun bitartean pentsatzen ari naiz, adibidez, han sorosle talde bat ari dela patera batean doazen 1.000 lagun erreskatatzen. Baina, zoritxarrez, han gertatzen dena ez da ezagutzen kazetariok azaltzen ez badugu. Eta nik, kazetari naitzen heinean horretaz idazteko beharra dut erraieran”.

Noiz eta nola suertatu zitzazun Lesbosera joateko aukera?

To Kyma. Rescat al mar Egeu (To Kyma. Erreskatea Egeo itsasoan) dokumentalaren harira, David Fontseca zuzendari-kideak egin zidan proposamena. Sekulako aukera iruditu zitzaidan, garai hartan Lesbosen gertatzen zena isilpean zegoelako oraindik, eta noski, aurkikuntza ikaragarria izan zen.

Zer aurkitu zenuen hara iritsitakoan?

Joan aurretik gertatzen ari zenaz asko irakurri nuen. Murgilketa moduko bat egin nuen. Gogoratzen dut Lesbosi buruz *Time* aldizkariak atera zuen zenbaki berezi bat. Baina hara iritsi nintzenean ikaragarria izan zen. Argazkiak eta hitzak motz gelditzen dira hango krudelkeria bizitzean. Itzuli nintzenean nire dieta mediatikoa erabat aldatu zen. Kataluniako aktualitate politikoaren inguruko interesa galdu nuen erabat, eta oraindik ez dut berreskuratu.

Zenbateraino aldatu da testuingurua urtebete honetan?

Aldaketarik handiena martxoan Europar Batasunak eta Turkiak sinatu zuten itunak ekarri zuen. Argi dago Turkian 8.000 lagun ateratzea ahalbidetzen zuten mafiek segurtasun indarren babesa zutela. Izan ere, itunaren ondoren eten da jariora. Jendea iristen da oraindik ere, baina ino-laz ere ez 2015eko urrian, ni han nintzenean, iristen ziren bezainbeste.

Zein iritzi duzu itunaz?

Legez kanpokoa izateaz gain, tamalgarria da gizakion bizitzekin salerosketa egiten duelako. Tira, ez da berria, Espainiako hegoaldeko muga-eredua esportagarria da: Espainiak Marokori ordaintzen dio jariora eteteko. Han berdin gertatu da eta horrek milaka laguni zigorra ekarri die. Mugak jartzea ez da sekula irtenbidea eta jatorrizko arazoa mantentzen den bitartean jendeak eskapu egiten jarraituko du. Oso larria da: ez gara salgaien zirkulazio askeaz ari, baizik eta pertsonen zirkulazio askeaz, eta hori Nazioarteko Giza Eskubideen Adierazpenean, Genevako Hitzarmenean eta Europar Batasuneko araudiaren erraie-



tan jasota dagoen oinarrizko eskubidea da. Inpunitateak ez du mugarik.

Nola da posible Europar Batasunak egoe- ra honen aurrean urratsik ez egitea?

Oraintxe 62.000 lagun daude Grezian harrapatuta. Horietako 16.000 uhar-teen, Egeo itsasotik iritsi dira Turkiaren eta EBren arteko itunaren ondotik. Beraz, euren estatusa atxiloketa administrazioa da. Gainontzeko ia 50.000 errefuxiatuak, aldiz, Greziako ihesla-rientzako eremuetan daude. Testuinguru horretan, harrigarria iruditzen zait Europa, denbora honetan guztian, irten-biderik aurkitzeko gai ez izatea.

Izan ere, han eta hemen, hamaika hiri prest daude aspalditik milaka errefuxiatu jasotzeko. Baina hori ez da gertatuko Eu- ropak jarrera aldatu arte.

Tira, oso polita da babes-hiri bilakatzea, baina horrek gero egiazko presioa eragiten badu. Haratago joan behar dugu. Katalunian, Espainiako gainontzeko hainbat txokotan bezala, hamaika hiri-tako udalak lanean ari dira, noski. Hala

Arantza Diez Lesbosen, 'To Kyma. Rescat al mar Egeu' dokumentalaren grabazioan.

ere nik indar falta ikusten dut. Elkarre interesgarri asko ari dira norabide horretan lanean, baina presioa gizartetik jaio behar da, ondoren presio politiko bilakatu eta herri erakundeetatik autonomikora, eta autonomikotik estatuko erakundeetara iritsi arte.

Zein iritzi duzu kazetaritzak errefuxia- tuen inguruan egin duen jarraipenaz?

Autokritikoa naiz eta onartu behar dut nik neuk askotan terminologia desegokia erabili dudala. Errefuxiatuen krisiaz hitz egiten dugu, krisia gizartearena edo Europar Batasunarena denean. Mediterraneoan gertatzen dena ez da drama, baizik eta krimena. Ezinbestekoa da gai guztietan, baina honetan bereziki, kazetariok hitz egokiak erabiltzea gure lana zuzentasunez egiteko. Eta kazetariok egin dugu kale, ez hedabideek.

Kazetaritzak zer egin dezake?

Galdera egokiak egiten dituen kazetari-

rik ez dago. Europar Batasuneko hedabideetan, nazioarteko sailetako kazetariak ez dute interesik erakunde publikoetako politikariak beren erantzukizuna onar dezaten. Nola da posible oraindik ere ez jakitea Europar Batasunaren eta Turkiaren arteko itunaren ondoren Greziak zenbat pertsona deportatu duen? Edo nola da posible informazioz ez egotea Europan desagertu diren 10.000 haurren inguruan? Kazetaritza da oraintxe botereak erantzukizuna bere gain hartzeko dugun baliabide bakarra, eta zorritzarrez, hedabide garrantzitsuenetako kazetariak ez dute beren lana egiten.

Nolako harrera izan du Lesbos, a cor obert (Lesbos, bihotza irekita) liburuak?

Tirada txikia izan du oraingoz, katalanez baitago bakarrik. Gaztelaniaz ere idatzi nahiko nuke, historia zabaltzeko modukoa iruditzen zaidalako. Beraz, oraintxe, saldutako kopuruak baino, irakurri duen jendearen *input*-ak jaso ditut bakarrik. Eta asko gustatu zaie. Irakurterraza da eta askok esan didate hunkitu direla... ■